

Kazetaria



Masifikazio turistikoa

Zapatilak kendu nahi ditut, puztutako oinak askatu, hanka gogortuak pixka bat luzatu, motxila utzi. Florentziako alde zaharretara sartzeko unea ere atzeratuko dut horrela, bost eguneko patxada eta gero, dena azkartu egin delako: hainbeste jende espaloietan bizkor ibiltzen, hainbeste auto zaratatsu, hainbeste autobus, tranbia, turista talde, palazio museo eliza basilika parke lorategi zubi hilobi eskultura merkatu izozkitegi pizzeria *focacceria paninaria*, dena ezinbestekoa nahitaezkoa derrigorrezkoa behar-beharrezkoa: ezinezkoa.



Florentzian Errenazimentuko estatuen aurrean argazkiak

**Bada, niri, primeran iruditzen zaizkit ilarak. Ordu laurden bat zutik eta geldi igaro ondoren, ezdonor aspertuko da bere bu-ruari argazkiak ateratzeaz, eta inguruari erreparatzeko bes-
te aukerarik ez du izango.** Begiratzeko obligazio horri esker, agian zerbait ikusiko du. Eta azkenean sartzen denean, bisita egiten denbora gehiago pasatzeko beharra sentituko du, ilara hain luzea egiten tentelegia izan ez dela erakusteko besterik ez

ilarak egin gabe sartzeko eskubidea ere ematen du, baina ikusi behar da nola ibiltzen diren, txartela lepoan, katedralera presaka sartzen, bisita azkar egiten, argazkiak ateratzen eta korrika hurrengo museora salto egiten, zoroen moduan. Horregatik, ilara luzeen alde nago. Horregatik, urtero 4,8 milioi turista jasotzen dituen Florentzian noizbait bisitari nahikorik ez balego, Udalak figuranteak jarri beharko lituzke ilarak luzatzeko. •



Bada, niri primeran iruditzen zaizkit ilarak. GAUR8

osasuna / hiriaren lo(r)aldia / **komunikazioa**

3 BEGIRADA: